

Itzulian nator

Euskaldunon Egunkaria, 2000-04-08: 13.

Lau etorrera egin ditut nik Andoaina, Euskal Herrira, kanpotik. Itzulian nator.

Lehen itzulia 1940an izan zen: alemanek utzi ninduten frontera. Gerra zibilak etxetik bota eta lau urte gero nentorren amari laguntzera: Goardia Zibilaren eskuetara, amets txarrak lagun. Labordeko fabrika honentantxe hartu ninduten lanerako.

Bigarrenagoz, 1944an heldu nintzen, Afrikako soldaduzkatik hiru urte galduta: oraindik ez nintzen ez letra, ez gizon; bai bata, bai bestea debekatu zidaten eta.

Hirugarren aldiz, 23 urte geroago, orain Ameriketatik: liburuxka batzuk goikoan (Iltzaileak barru), isilik egotekotan.

Laugarrenez, Franco hil berria (1976), eta hemen nator betiko. Utzi nuen politika kamutsa; euskara zegoen pobre, eta jarraitu nuen idazten. Orain hamar urte beste abertzale batzuekin sortu genuen EGUNKARIA, orain beteko da hamarkada. Neu ez naiz gaztetu; urte eta erdi falta laurogei betetzeko. Bitarte honetan egin ditut lagun leialak, bidean galdu ditugu bi apartak; biziak ekarri naute gaur nire jaioterrira, Andoaingo Buruntza mendiko harri koskor erraldoiaren babes ederrean eraikitzen ari diren kultur parkeari nire izena ematera.

Esker handiak eta onak eman nahi dizkizuet seinale eder honengatik.

Iraun dezala Andoaingo euskarak Buruntzako harri tontorrak adina. Larramendi poztuko da dagoen lekuan.